

Inmaculada de Miguel

Justizi Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailekoa

Euskararen egoera Justizi Administrazioan:
geroari begira

■ Abenduaren 18 eta 19an egin ziren Euskararen Justizi Administrazioan izeneko jardunaldiak, eta, haien oihartzunak oraindik isildu gabe daudela, une egokia dirudi gogoeta txiki bat egiteko: zer ekarri duten eta, are garrantzitsuagoa, nolako erreferentzia izango diren etorkizunerako. Orain da aukera, halaber, han bildutako pertsonen harremanetik sorturiko sinergiak aprobetxatzeko eta lanean hasteko, lasterregi joan gabe baina etenik gabe, han agertutako ondorio eta lan ildo batzuk errealitate bihurtzeko.

Jardunaldien helburua zen gaur egungo Justizia alorraren argazki bat egitea euskararen aldetik, eta lan ildo homogeneo eta norabide berekoak bilatzen ahalegintzea hizkuntza horren normalizazioan aurreratzeko lanean ardura dugun guztion artean. Bi helburuak bete ziren, baina, gainera, lortu zen gai honen inguruko sentsibilitate oso diferenteak errespeturik handienarekin eztabaidatu ahal izatea, defenditzen diren iritzietan erabat sinesteak ematen duena beste surik gabe. Dударik gabe, horixe da bide zuzena, lasaitasunean eta errealisismoan oinarrituta mintzatzea, gaiak merezi duen kezkearekin, eta han ordezkaturiko guztien gutxieneko oinarri komuna osa dezaketen bide ezberdinak arakatzea.

Gehiegi hitz egin da ja iraganaz, eta huts berak ez errepikatzeko baizik ez digu balio iraganak; orainaz eta geroaz hitz egiteko sasoia dugu.

Oraina da euskararen lege araudia (Autonomia Estatutua, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea eta Bortere Judizialaren Lege Organikoa). Horiek dira markoa eta erreferentzia; eta oraina da legeak garaian garaiko errealitate sozialaren arabera interpretatzeko irizpidea. Tresna horiexekin bakarrik, eta egingo diren jardueren ardaztat euskal herrita-

rrak eta haiek jaso behar duen zerbitzu publikoa hartzeko borondate irmo eta iraunkorrarekin, ez dago zalantzarik lana etorkizuneko errealitate batzuetan gauzatu delako.

Horretarako, beharrezkoa da premisa eztabaidaezin batzuetatik abiatzea: normalizazio prozesuan parte hartu behar dute Justiziarekin zerikusia duten erakunde eta talde guztiek, zeren eta ahaleginak eta gogoak batzea baita kontua, ez banatzea; edozein polemika edo diskurtso ideologikotatik aparte gorde behar da euskarara; zailtasunak zein diren onartu behar da, bai baitira, izan, eta handiak gainera (ez haietan trabatuta gelditzeko, baizik eta saihesten saiatzeko); xedetzat harturik euskarara ere zerbitzu eta lan hizkuntza izatea Justizi Administrazioan. Azken batean, gure herritarren hizkuntz eskubideak betetzea Justizi Administrazioarekin harremanetan sartzan direnean, aldi berean zerbitzari den pertsonal judizialaren eskubideak errespetatzen ditugularik. Oreak nekeza da, eta zailtasunak nabariak, baina horrek eragingarri izan behar du, ez eragozkarri.

Egungo egoeraren analisiari dagokionez, errealitate batzuk garbi ageri dira:

- Nahiz eta egungo egoera sozio-linguistikoa euskarara aurrerabidean den hezkuntza, gizarte eta administrazio alorrean, Justizi Administrazioan euskararen erabilera oraindik normalizatu gabea eta arazotsua da, bai erabiltzailearentzat eta bai zerbitzuarentzat berarentzat; beraz, ezinbestekoa da erabileraren normalizazio prozesuari ekitea.

- Orain arte egindako jarduerak, aurretik zehaztutako plangintzarik ezean, ez dira harmonikoak eta sistematizatuak izan, eta ondorioz ahaleginek ez dute fruitu onik eman. Izan ere, beren lana bi hizkuntzetan egiteko gai diren pertsonen aprobe-

txamendua eskasa izan da. Ildo honetan, aurreko urteetan emandako euskarara prestakuntza, Justizi Administrazio zerbitzua transferitzea 1996an, eta sindikatu-kin duela gutxi sinatu den akordioa, hala nola Justizi Administrazioaren zerbitzuko langilariaren jarrera oso aldekoa, oso elementu garrantzitsuak dira berehala hasi beharreko prozesu honetarako.

- Aurrera egin nahi duen planteamendu orok leku eta denbora jakin batera egokitu behar du, eta horrek eskatzen du elebitasuna ziurtatzeko behar diren bitarteko tekniko eta pertsonalak erabiltzea.

Jardunaldietan eztabaidatu ziren epe laburreko jarduerari buruz, Justizia Sail honen asmoa da bi ildotan lan egitea: batetik, bere ardurapean sartzan direnak zuzenean egitea, eta, bestetik, dagokien erakundeekin koordinaturik bultzatzea beste batzuk, helburu orokorragoak; esate baterako, Hizkuntz Normalizaziorako Nazioarteko Batzordea eratzea, Justizia alorrean eskumena duten erakunde guztiek osatua.

Berehalako jardueratzat jo behar dira:

- Hizkuntz normalizazio prozesua hasitea Justizi Administrazioaren zerbitzuko langileen artean, berriki lan baldintzei eta zerbitzu eskaintzaren normalizazioari buruzko Akordioa sinatu duten sindikatu-kin hitzartutako konpromiso alde biko eta elkarrekikoaren arabera.

Horrek zera dakar:

- a) Herritarrekiko harremanetan euskarara erabiltzea bultzatzeko programa bat. Horretarako, eredu informatikoen erabilera eta itzultzaile nahiz teknikari batzuen laguntza sustatuko da organo judizial batzuetan, zein aukeratuko baitira egokitasun irizpideen arabera.

b) Hizkuntz Normalizazioko Plangintza diseinatzea, prozesu gisa ulertua eta honako ezaugarri hauek izango dituen:

progresibotasuna, errealitate sozialaren guistikoari egokitzea, eta epaitegi bakoitzeko egituraren betetzen den funtzioak arabera behar den euskarara maila bakoitzaren arabera. Horretarako, Jardunaldietako erabakietan bildutako datu estatistikoak erabiltzea. Horrelaxe ageri da dagoeneko bitartekoak dira, dauden premien eta bitartekiek betetzeko bitartekoen neurria emateko.

c) Plangintza hori ez dagoen bitarteko behin-behineko neurri batzuk hartuko direla, hala nola baldintzen artean hizkuntza gaitasuna eskatuko den lanpostu bakoitzaren arabera. Horrelaxe ageri da dagoeneko plantilla proiektuan, eta horri onarritza emana diote sindikatuak nahiz Justizia Sailak. Horrelaxe ageri da Justizia Ministerioko langileak, eskumen batzuk baititu langilearen transferituaren gainean ere, gorpuzki zionaleko kide diren kasuetan, sententziazioa izatea normalizazio hastapen baten alferrik gal ez dadin.

- Eredu informatiko errebisatu eta prestatu ugari jarri joatea, jurisdikzioaren barruan (instrukzioa) eta administrazioaren barruan (aizuei dagozkienak, eta datorren urtean osatzea jurisdikzio sozialari eta erregio zibiletakoari dagozkienekin).

- Euskarara ikasteko eta hobetzeko sasiak zabaltzea epaile, fiskal, idazkari, justiziari eta justizi administrazioaren zerbitzuko langileen artean.

Aipatu jardunaldietan proposatutako ekimen eta iradokizunak gauzatzeko daitezkeela nabarmentzeko modua hoberena, partaideok bigarren aldi baterako gelditzea da, urtebeteren bururako edo. Orduan egin genezake izandako zerbaiten eta bete gabeko helburuen azterpena, eta ikusi ea hasitako bidea zuzena den edo ez. ■

Erredakzioan itzulia

Joxe Lazkano

IKAko irakaslea

Gaur egun non eta nola ikas dezake euskal hiritar batek euskara?

■ Egia esan, bakar batzuek, autodidakta izanik, euron kabuz ikasteko ahalmena izango dute; beste batzuk, zorionez, inguru euskaldunetan biziko direnez, eguneroko bizitzak irakatsiko die euskarara. Baina, zoritxarrez, gure egoera soziolinguistikoa ez digu horretarako aukera handirik ematen; beraz, gehiengo oso batek euskaltegien beharra du euskara ikasteko.

Azterantz begiratuz gero, euskaltegiek orain arte bete duten lana ikaragarria izan da euskararen ezagupena eta erabileraren sustatzeko, batez ere leku erdaldunetan. Lan isila eta oraindik oso gutxi estimatua.

Hemendik aurrerakoa nola landu beharko genukeen aztertzean, ordea, gure

kezka handituz doa kultur eta hizkuntz politikaren ildo nagusiak zeintzuk diren ikustean. Helduen euskalduntzean ari garenok gara gure sektorea normalizatzeko desiatzen gauden lehenak, baina, nola ordea?

Nahiz eta orain arte diru gutxi jaso, gure lan baldintzak oso onak ez izan, aurrera egin dugu helduen euskalduntzean. Ahal izan dugun neurrian egin diogu aurre demandari eta emaitzak hor daude, kalean, errealek dira.

Egun administrazioan ez omen dago dirurik; murrizketak, lehentasunak, premiak eta abar eguneroko kontuak dira. Horrek guztiak helduen euskalduntzearek eragiten dio eta emaitzak ez dira, gure ustean, oso onuragarriak. Euskal Herria

euskalduntzea benetako premia al da?

Euskal Herriaren egoera zein den ikusita, instituzioek bere lehentasunak izango dituzte, eta hor barnean hizkuntz politikak ere bereak; baina horrek ezin du oztopatu herritarrek euskara ikasteko duten eskubidea. Euskararen egoera zein den ikusita, sinestezina dirudi HABEK (Hizkuntz Politikarako Sailordetza) ordu kopuru mugatua ezartzea euskarara ikasi ahal izateko, kopuru horretatik aparte gertatzen diren euskal herritarrek ezingo baitute ikasi euskarara. Eta, gainera, tris-tea benetan, euskaltegi batek berari dagokion neurriraketa gainditzan baldin badu, hau da, banatu diotena baino ordu gehiago ematen baditu ikasle gehiago hartu dituelako, HABEK zigortu egingo du diru-

laguntzak murriztuz. Nola liteke?

Helburua berreuskalduntzea izanik, du zentzurik dagoen demandari ez eragotzitea: Autonomia Erkidegoan, 1996ko soziolinguistikazko inkestaren arabera, %25 dira euskaldunak; adibidez, 16 urte bitarteko %33 eta 25-34 bitarteko %25; beraz, atera kontuak zenbat daitezkeen euskaltegiak.

Eta, maila berean, ez du zentzurik Jaurlaritzak horrelako neurriak bultzatzea beste guztioak euskararen irakaskuntzaren inguruan eta jendea euskarara bultzatzu egiten ditugun ahaleginak ikusita. Gogorra baina hala da.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da euskaltegiok biltzea eta arazoei irtenbideak emateko. ■